

## MEMORIA

### URRETXUKO UDALAREN FUNTZIONAMENDUARI BURUZKO UDAL ARAUDI ORGANIKOA ONARTZEKO PROZEDURAREN AURRETIKO KONTSULTA PUBLIKOAREN TRAMITEA.

Herri Administrazioetako Administrazio Prozedura Erkideari buruzko urriaren 1eko 39/2915 Legearen 133 artikuluan ezarritakoaren arabera, egitasmoak eta aurre-egitasmoak eta araudiak egin aurretik, kontsulta publikoa egin beharra dago, hain zuzen ere etorkizuneko arauak agian eragingo dien pertsonen eta elkarte esanguratsuenen artean iritzia jasotzeko; beraz, hori betetze aldera, aldez aurreko kontsulta egin bedi *Urretxuko Udalaren funtzionamenduari buruzko udal araudi organikoa*..

Arauren aurrekariak	Arau honen aurrekaria Udalbatzak 208ko urtarrilaren 28an onartutako eta indarrean dagoen Erregelamendua da.
Hori onartzeko beharra eta aukera	Beharrezkoa da Funtzionamendu Erregelamendu berri bat onartzea, toki-araubidearen oinarriei buruzko legeak eta Euskadiko Toki Erakundeei buruzko Legeak udal-funtzionamenduan eskatzen dituzten aldaketak jasotzeko
Ekimen honekin konpondu nahi diren arazoak	<p>I. tituluan (Udalbatzako kideen estatutua), korporaziokide izateari uzteari, eteteari eta galtzeari buruzko alderdiak arautzen dira, eta, bereziki, haien eskubide eta betebeharrei buruzkoak.</p> <p>II. Tituluak Udalaren beharrezko antolaketa arautzen du, Alkatetzak, Osoko Bilkurak, alkateordeek eta tokiko gobernu-batzarrak osatutakoa.</p> <p>Oposizioaren estatutua ere arautzen da, Euskadiko Toki Erakundeei buruzko Legean</p>

xedatutakoa eta korporatiboek jarraitu beharreko jokabide-kodeak kontuan hartuta.

III. tituluak udalaren beharrezko organoen funtzionamendua jasotzen du, bai eta aparteko egoeretan saio telematikoak egiteko aukera ere, bai egoera berezietan dauden korporaziokide batzuentzat, hala nola ezintasun luzeetan edo erditze eta amatasun bajetan daudenentzat.

Era berean, gainerako gobernu-organoen jarduna osoko bilkurak kontrolatu eta fiskalizatzeari buruzko xedapenak jasotzen dira, zentsuramozioan bereziki aipatuta.

IV. tituluak udalaren antolaketa osagarria arautzen du, hau da, ezagutzen diren organoena: nahitaezkoak eta borondatezkoak.

Lehenengoan artean Batzorde Informatiboak, Kontuen Batzore Berezia eta Bozeramaileen Batzordea arautzen dira. Batzorde Informatiboaren erregulazioa azkeneko berrikuntzak kontuan hartuta egiten da, haien funtzionamenduan eraginkortasun handiagoa lortze aldera.

V tituluak prozedura administratiboa arautzen du.

VI. tituluak Auzoaren Estatutua arautzen du, eta Erregelamenduaren oinarrizko zutabeetako bat da, bizilagunek osoko bilkurari mozioak, eskaerak eta galderak aurkezteko aukera arautzen baitu.

VII. tituluak herritarren parte-hartzeari buruzkoa da. Araudi horren oinarrizko beste zutabeetako bat da, eta Urretxuko Udalak, esleituta dituen eskumenen barruan, herritarren parte-hartzea sustatu nahi du, Euskadiko Toki Erakundeei buruzko apirilaren 7ko 2/2016 Legean xedatutakoa kontuan hartuta.



Urretxuko udala



Arauren helburuak	Erregelamendu honen xedea da honako hauek arautzea: Udalaren antolaketa-araubidea. Udal-organoen funtzionamendua. Udalbatzako kide hautetsien estatutua. Administrazio-antolamendua. Herritarren parte-hartzea
Aukerako soluzio arautzaile eta ez arautzaile posibleak.	Ez dago beste irtenbiderik, indarrean dagoen 2008ko Udal Araudi Organikoak ez baititu jasotzen egungo arauzko eskakizunak.